


# Enpresa eredu berezia 102-1; 102-2; 102-5; 102-7

**E**ROSKI, kooperatiba izanik, kontsumo handiko ondasunak eta zerbitzuak banatzen dituen txikizkako lehen banaketa taldea da Espainian, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. Taldearen enpresa nagusia EROSKI Koop. E. kontsumo-kooperatiba da, zeinak hiru ezaugarri biltzen baititu bere baitan: banaketa enpresa bat da, kontsumitzaileen antolakunde bat da eta proiektu kooperatibo bat da non kontsumitzaileek eta langileek protagonismoa eta subiranotasuna partekatzen duten.

Enpresa eredu berezi horren bidez, bi alderdi batzen dira; batetik, profesionalak zuzenean kudeatzen dute erakun-

dea, eta, bestetik, gobernuan daukagu gure interes talde nagusia, hau da, gure bezeroak. Horri esker, elkarri loturik eta koordinaturik gelditzen dira entitatearen estrategia espezifikoak eta langileen eta kontsumitzaileen eskari orokorrak. Gaur egun, kooperatibak eta haren mendeko beste 26 sozietateek garatzen eta kudeatzen dute gure negozioen sare komertziala; EROSKI Taldea osatzen dute horiek, eta berak kontsolidatzen dira taldearen finantza egoeretan. Sozietate horien zerrenda dator memoria honetako gardentasunaren kapituluari, eta, orobat, horietako bakoitzak agiri honetan aipagai diren zein alderdi betetzen duen.

## EROSKI Taldearen 27 sozietateen organigrama eta EROSKI Kooperatiba Elkarteak haietan duten partaidetza, ehunekotan:



102-2; 102-6

Eskaintzen ditugun produktuen eta zerbitzuen kalitatea eta bikaintasuna gero eta handiagoa izan dadin saiatzen garenez, EROSKI Taldearen barruan zenbait entitate daude negozio lerroetan eta eskualde geografiko jakinetan espezializatuta daudenak; hona hemen nabarmentzeko batzuk:



**CAPRABO** da erreferentziako supermerkatu konpainia Katalunian. 1959an sortu zen, eta Espainiako supermerkatu enpresarik antzinakoena da; haren sarearen eskualde estrategikoak Katalunia eta Andorra dira. 2007. urtetik, EROSKI Taldearen parte da CAPRABO.



**VEGALSA-EROSKI**, erdibana dute Ventura Gonzalez familiak eta EROSKIk. EROSKI Taldearen parte da 1998tik, eta erreferentziakoa da Galiziako banaketa komertzialean. Gaur egun, inguruko erkidegoetara zabaldua du bere jarduera, hots, Asturiasera eta Gaztela eta Leonera, zeinetan sendo ezarria baitago.



**EROSKI**k bidaia agentzia propioa du, EROSKI Bidaiak, eta, oporren sektoreaz gain, leku nabarmena du enpresa bidaietan eta biltzarren antolamenduan, bere bi marken bitartez: Travel Air eta Travel Air Events.



**FORUM SPORT** kirol arloan EROSKI Taldeak duen ikurra da. 25 urteko eskarmentuarekin, kirol materiala saltzen espezializatua dago, eta 10 erkidego autonomotara hedatua da; gainera, hazkunde erritmo positiboa darama.

